

IRITZIA
Ion Arrieta

ERREPORTAIA
Emakumeen lana
isilean

BERBETAN
Ana Isabel Pérez
kazetaria

KIROLA
Morkaikoko
zuzendaritza berria

KULTURA
Edurne Lasa
Goenkalen
hasiko da

BARREN

1997ko martxoaren 7a
V. urtea - 186. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Klaratarren bizitza lanean




“Gizartearen garapena emakumearen garapenaren arabera neurtzen da” Alexis de Toqueville

ASTIGARRAGA

garajea

DENETIK DAUKAGU:

belarra mozteko makinak,
motohaitzurak,
motokultoreak,
esku motosegak,...



*PRESTATU ZAITEZ
UDABERRIRAKO*



San Frantzisko, 53

Tel: 74 01 86




Softlan

Pedro Muguruza, 13
20870 ELGOIBAR

☎ **74 43 61**

ANALISIA ETA PROGRAMAZIOA




Zeren zain zaude?

Id	Artículo	Descripción	Cantidad	Precio	Ext.	Importe
1	10011-00100000	1000000 UN. 20 P-114	1.000	100.00	5.00	400.00
2	10011-00001114	1000000 UN. 20 P-114	1.000	100.00	0.00	100.00

**Gestio Komertziala erraz eraman daiteke informatikari esker.
Dirua eta denbora aurreztuko dituzu.**

**Standarra eta neurrira egindako softwarea • Sare lokalak
Hardwarea eta mantenua • INTERNET eta Web orrien diseinua**



ION ARRIETA

Inorenak ez diren gauzak

Oso umeak garenean eta gure burua besteengandik aparte dagoela konturatzen garenean, “ni” zer den ikasten dugu. Handik pixkatera “zu” ere ikasten dugu eta geroago “hura”. Problema handiagoa sortzen zaigu “gu” ulertze-ko. “Gu” kontzeptua nahiko arraroa da, “gurea = neri tokatzen zaidana, baina besteena ere badena”.

Baloia “gurea” bada, “haiena” ez da, baina nik ezin dut nerea bakarrik balitz bezala erabili. Ez, ez dago ezer garbi.... Hala ere, badago beste forma pertsonal bat askoz ere zailagoa ulertze-ko: “gurea”, denona denean. Adibidez: kalea, errepidea, parkea, plaza, kontenedorea, autobusa, ibaia, hondartza,

Norenak dira denen gauzak ? Nire autoan ez dut paperik botatzen, nire etxeko komunean txisa zulora egiten saiatzen naiz, nire garajeko hormak ez ditut zikin-tzen, sukaldean ez dut txisturik botatzen. Baina denonak diren aparkalekua, trena, mendia,... ez omen daukat nireak bezala zaindu beharrik. Denona ez al da “gurea”?

Oraindik badago beste erlazio bat “ni” - “gu” nahiko berezia, eta kontzeptu biak borrokan jartzen dituen: Haziendarekin dugun erlazioa.

Hazienda ez da han ilargian dagoen en-

te abstraktu bat, baizik eta gu denon dirua batu eta gure bizitzako behar batzuk bete-
tzeko gastatzen duena. Laster tokatuko zaigu Haziendari egin beharreko urteroko aitortpena, nirea den dirutik denona izan behar den poltsara pasatzea. Nire poltsa txikitu, denona handitzeko. Uf! Nirea eta denona (gurea) hain kontrakoak izatea ere ...

Egia esateko, mila arrazoi dauzkagu Haziendari ahal dugun gutxien ordaintze-ko: “Ni ez nago ados agintzen duen partidoarekin... Dirua ez da behar bezala gastatzen... Lapurra beste-rik ez dago, korrupzioa ugari... Bakoitzari tokatzen jakon neurrixan ordaintzen dabanian eta administrazioak behar dan moduan gasta-tzen dabanian, nik ere orduan tokatzen jatana ordainduko dot...” Eta Haziendari kentzen dioguna, ONG edo horrelako

elkarte bati ematen diogu gure laguntza: Medicus Mundi, Caritas, Gurutze Gorria, Odol Emaileen Elkarteak, elkarte kulturak, Ihesaren kontrako elkarteak,... Horregatik hain zuzen ere, erakunde guzti hauek diruz itota daude. Ez?

Gizarte baten aurrerabidea neurtzeko parametro asko erabil daitezke, baina hau ere izan daiteke: DENONA dena, GUREA da eta horregatik NEREA ere bai.

“Denonak diren gauzak ez ditugu askotan gureak bezala sentitzenn”

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak berea aukeratzen du.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte.

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo.

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Gemma Agirregomezkorta,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi,

Mila Osoro, Pello Rubio,

Unai Villena eta Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga.

INPRIMATEGIA

Gertu koop. E.

TIRADA

4.000 ale.

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

Gizonezko baten komentarioa

Lan kontuak zirela eta asteburu-kaera hiri handi batean pasatu beharra izan nuen duela hilabete. Egun osoa bileran eman eta gero, gaua iritsi zenean deskonektatu besterik ez nuen nahi. Bakarrik joan nintzen hiri hartara eta hotelean sartu eta telebista ikusi ondoren ohera joan baino beste edozer egitea nahiago nuen. Horrela bada, bakarrik ateratzea okurritu zitzaidan behingoz. Eta hala egin nuen. Hiri hura ezezaguna zen niretzat baina taxistari zonarrik zentrikoenera eramateko eskatu eta argi urdin deigarriak zituen tabernan sartu nintzen.

Musika polita, gauetan izaten den giro majikoa, barra jendez gainezka... Gustatu egin zitzaidan tokoa. Garagardo bat eskatu eta barran eseri nintzen. Ez zen denbora asko pasa bi mutil gazte hurreratu zitzaizkidanera arte: ea zerbait hartu nahi nuen, nongoa nintzen... betikoa. Gero beste gizon batek txanda hartu zuen eta hark ere betiko leloa, ni bezalako emakume polit batek bakarrik zer egiten duen... Larunbat gaua zen, eta litekeena da jendea ligatzeko intentzioarekin ateratzea. Ez zen nire asmoa. Gau batez bakarrik irten eta disfrutatzen ikasi nahi eta ezin.

Berehala hotelera itzuli nintzen eta telebista ikusi eta gero ohera.

Astelehian, lantokian gaia komentatu nuenean hara batek esan zidana: "Zer uste zenuen? Emakumeak ez dira gauetz bakarrik ateratzen". Gizonezko baten ahotik ateratako komentarioa izan zen, astelehenero-astelehenero larunbat gauetz bakarrik atera eta izaten dituen abenturak detaile osoz kontatzen dituzten horietakoak. Kurioso, ez?

K.R.L

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuzunik.

GALDERAK

◆ “Madalako zakar kontenedoreak batetik bestera dabilta (dara-biltza norbaitek) azken aldian. Erabaki al du Udalak kontenedoreak non egon behar duten?”

Udal Gazte Batzordeko Ales Arrietaekin egon gara eta esan digunez, “momentuz kontenedoreak Madalako aurreko aldean daude. Hala ere, aurrerago atzeko aldean kokatuko dira, kokapen definitibo izango da gainera. Dena den, oraindik asmoa bakarrik da eta aldaketa egiten denean auzotar guztiei jakinaraziko zaie”.

KEXAK

◆ Leku-Ederren txakur kaka asko egoten direla eta kexatu da gizon bat. Ume asko ibiltzen den ingurua da eta kakarekin zikindu egiten omen dira. Ez zaiola batera higienikoa iruditzen esan nahi du.

◆ Gizon batek kexa hau luzatu digu: “herrian parke gutxi dagoela eta kexatzen gara baina Plaza Txikian daukagun parkea edukita, onartezina da haurrak ibiltzen diren moduan ibiltzea, dena izorratzen. Gurasoek parkea ondo zaintzen irakatsi beharko liekete eta Udaltzaingoen ere hobeto zaindu beharko lukete”.

TXALOAK

◆ Txalo bat eman nahi diet Haizea emakume taldekoei emakumearen alde egiten ari diren lanarengatik. Animo eta segi horrela.

◆ “Zergatik ez dituzte Bernardo Ezenarro kaleko parkean haurrentzako kopunpioak jartzen?”

Jose Mari Orueagasti Hirigintza buruak adierazi digu parkea egokitzeko asmoa dutela. “Batetik, makina barridorea sartu ahal izateko konponketak egin behar dira. Bestetik, leku oso umela denez jende nagusia ez da hara joaten. Hala ere, pentsatzen dugu umeak joango direla eta badugu bankoak eta haurrentzako kolunpio eta horrelakoak jartzeko asmoa”.

B A I , E S A N ?



Itziar

Fernandez
Emakundeko
idazkaria

Bihar, martxoak 8, Emakume Langilearen eguna dela-eta, EMAKUNDEK tratu txarrei buruzko kanpaina bati ekin dio. XXI. mendearen atarian oraindik ere emakume askok tratu txarrak jasaten dituzte. Gai honi buruz hitz egiteko **Itziar Fernandez EMAKUNDEko idazkariari** deitu diogu.

- **Zein dira tratu txar ohikoak?** Ohikoenen artean “etxekeo tratu txarrak” daude (bikote nahiz familia barrukoak), fisikoak zein psikologikoak. Edozein adin-multzo, hezkuntza, gizarte eta ekonomia mailako jendearen artean gertatzen da. Etxe barruko tratu txarrak eragin ditzaketen faktoreek (alkohola, langabezia, pobrezia...) baino eragin gehiago du ikerketen arabera, emakumeek jasaten duten ezberdintasun egoerak. Menpekotasun ekonomikoa, rolen banaketa, familia barruko funtzio banaketa (emakumea menpean) eta sexu-estereotipoak desageratu ez izana dira sakoneko arrazoiak.

- **Zer egin dezake tratu txarrak jasaten dituen emakume batek?** Ondorio psikologikoei aurre egitea da lehen gauza. Nahasmendu psikopatologikoak agertzen dira: trauma osteko estres desoreka, depresioa, autoestima urria, etab. Tratamenduari esker, norberaren bizitzari berriro ekin, beldurrei aurre egin eta bizi duten egoerari erantzutea posible da. Hiru lurraldeetan laguntza psikologikoa eskaintzen duten programak daude. Beraz, emakumeek ez badituzte zerbitzu hauek ezagutzen, Udaletxean emango diote informazioa Edo Emakundeko (945) 13 16 13an. Auzitegian salatzeak aukera ere badago eta zauriak izanez gero zuzenean medikuarengana jo.

- **Noiz lagako dio emakumeak “sexu ahula” izateari?** Denon esku dago. Faktore garrantzitsuenak familia, hezkuntza eta komunikabideak ditugu. Estereotipoak ezabatu behar ditugu. Berdintasun oinarrituriko gizartea hezkuntzaren bitartez, familian ardurak banatuz eta seme-alabei eredu igualitarioak transmitituz lortuko dugu. Komunikabideetan, zer esanik ez, estereotipoak ahuldu egin behar dira eta informazioarekiko ikuspuntua zabaldu, gaur egun bai emakumeak bai gizonezkoak baitira gaurkotatasunaren protagonistak.



1997ko martxoaren 1ean, 33 urte zituela hil zen **MARIA NIEVES ASTIGARRAGA URIA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Era berean, gogoratu **ERROSARIO SANTUA** izango dela martxoaren 10etik 14ra Madalako elizan, arratsaldeko 8retan.



Emakumeen lana

ISILEAN

Martxoak 8 dugu bihar, Emakume Langilearen eguna. Data berezi hori aitzakia hartuta, aste honetan Santa Klara komentura joan gara. Gaur egun II moja bizi dira bertan eta haiekin jardun dugu berrikerian. Izan ere, otoitz egiteaz gain beste lan asko ere egin behar izaten dute emakume hauek bizitza aurrera ateratzeko. Eskolak eman izan zituzten, Sigmarakopiezak montatu, gaur egun arropak garbitu eta plantxatzen dituzte. Eurarak esan bezala, “moja baino lehen emakumeak gara”. Emakume eta langile izate horretan harrapatu nahi izan ditugu, euren ereduaren berri ematekoasmoz.

Karmen Lazkanok 67 urte ditu, M. Jesus Alaiogoikoak 71, Mertxe Etxeberriak 55 eta Maria Jesus Azpiazuk ere 55 urte. Laurek beraien bizitzako zatirik handiena Elgoibarko komentuan daramate. Gizartean izaten diren aldaketek badute eraginik klausurako mojen bizitzan ere. Eta

ondo baino hobeto azaldu digute nola ofizio asko ikasi behar izan duten aurrera ateratzeko.

Brotatzen ematen zituzten egunak duela 50 urte, “eskulana eitzen genduan, puntillak, bordauak.... danetik. Ezkontzeko arreo asko ein gendun. oso ederrak. Oin garbitzera ekartzen dituzte batzuetan eta satisfazio handia ematen du. Garbiketa batzuk ere gure kontura izaten zian, batez ere parroki- xa, ermita eta holakuentzako eitzen genduazen”. Garai hartan gizonezko- rik apenas sartzen zen Santa Klaran, “asko jota arotza edo medikua behin edo behin. Eta etortzen zianian, atarira sartu eta kanpanila txiki bat jo bihar izaten zeben abisatzeko. Gu goitxik behera tapatzen ginan, ahalik eta gitxien ikusteko”. Gaur egun, aldiz, lanaren eraginez batez ere, gizonezko as-

korekin izaten dituzte harremanak, “tailarreko jefia dala, teknikua, transportista.... gizon asko etortzen da hona”.

Nesken eskola

1957. urtean neskei zuzendutako eskola ireki zuten Santa Klarako mojek, “basika eta batxileratoa, solfeoa, kontabilidadea eta frantsesa erakusten genitxun”. Klaratarrek osatutako federaziotik bidaltzen zituzten Elgoibarre- ra majisteritza egina zuten monjak, “frantsesa edo eman bihar zala eta inork ez bazakixan, eskatu eta bialdu eitzen zeben”. Bataz beste 300 ikasle inguru izaten zituzten Santa Klaran, “iluntzetan bordaua eta kortia ere erakusten gendun, josten”. Esan digute- nez herriak eskatuta ireki zen eskola. Orduan Pio XII.a zen Aita Santua eta hark





Orain dela gutxi jarri dute martxan labanderia zerbitzua.

dexente ireki zituen klaratarren atek, “esan zuen eskola eman genezakeela beti ere konbentutik atera gabe”. Gero, ordea, Kontzilioa izan zen eta gauzak beste era batera definitu zituzten, “gure jatorrira itzuli behar ginen, otoi eta isiltasun bizitzara. Haurrekin irteera bat zela eta egun osoa konbentutik kanpo egon behar izaten ginen eta gure kontenplazio bizitza beste era batekoa zen. Dedikazio oso estua eskatzen zuen eskolak emateak eta gure aukera Jainkoari eskainitako bizitza izan zen”. 1973an itxi zen eskola.

Sigma

Beste irtenbide bat bilatu beharra izan zuten mojek eta hasiera batean Iruñeko fabrika batentzat eskuz josten zituzten haurrentzako eta emakumeentzako barruko erropa, kamisoiak eta antzekoak, “ebakita ekartzen zizkiguten eta guk josi. Dana eskulana zan baina soldata miserizkoa zen”. Kontatu digutenez, “behin, Donostiko eskaparete baten ikusi nuen guk indako kamisoiak eta kuriositatez galdetu nuen ea zenbat balio zuen: 17.000 pta! eta guri 2.000 pta. ordaintzen ziguten! gainera, deskuiduan neurrian edo ez bazegoen ondo, askatu eta berriz josi behar izaten gendun!”.

Halako batean Sigmatik eskaintza bat iritsi zitzaion, “ea prest egongo ginen montatzeko, josteko makinaren pedala. Guretzat berria zen baina erakutsi ziguten eta lan horretan sartu ginan. Horrela itxi arte, 20 urte”. Sigmatik itxierak, beraz, Santa Klarako mojentzat ere krisia suposatu zuen. Izan ere, beraien diru sarrera finkoena bertan behera geratu zen. “Momentu hartan eseri eta gure artean planteamendu serioa egin behar izan genuen, aurrerantzean gure bizitza nondik bideratu ahal genuen ikusi eta zein lan mota egin genezakeen aztertuz”. Eta ate joka hasi ziren, “enpresetara jo genuen gure zerbitzua eskainiz”. Gaur egun Lagun en-

presak ematen dizkie zenbait lan, “montatzeko piezak ekartzen dizkigute. Guretzat berrizak dianian teknikuak esaten digu zela montatzen dan”. Konbenioaren arabera kobratzen dute, “langileek beste”.

Labanderia

Sigma itxi zuten garaian izan zen krisiaren ondorioz, hainbat ideia izan zuten buruan eta horietatik bat jarri zuten martxan, “labanderia”. Dirudienez, Oñatiko klaratarrek labanderia dute eta oso ondo doakie, “Garai, Zahor eta beste enpresa batzuetako buzoak garbitzen dituzte, barnetegikoak, ostalaritzakoak... Lan asko dute. Guk makinak jarri genituen, inbertsioa egin gendun”. Gaur egun, Oñatitik bidaltzen dietenez gain Elgoibarren bertan ere badute lanik, “jendiak badaki garbitxu eitxen dogula eta ahoz ahoko publizitatiek da onena. Gainera, garbitziaz gain konpondu eta ondo plantxauta entregatzen dou”. Astelehen, astearte eta asteazkena oso-osorik garbiketean ematen dute.

6,30etatik martxan

Goizeko 6,30etan esnatzen dira Santa Klarako mojak, musika piskate-

kin. Gaueko 10ak bitartean otoi eta lana tartekatzen dituzte. Bazkalorduan, “irakurtalditxo bat ere egiten dugu. Aldizkariaren batean edo periodikuan datorren notizi edo artikuluren bat”. Igandea izaten da jaieguna komentuan, “bakoitzak nahi dabana eiteko denbora libria daka”. Emakume hauek, aldiz, gainontzekook ez bezala, ez dute oporretarako plan bereziak izaten, ez behintzat hondartzara edo atzerriko herrialdeak ezagutzeko izaten dugun grina hori. Mijek abuztuan astebete izaten dute opor, “aukera daukagu nahi badugu beste herri bateko konbentura joateko baina normalian hemen geratzen gera. Gu oso gustura gaude gure isiltasun eta bakardadean eta demostratu degu posible dela herri desberdinetako jendea elkarrekin bizitzea, lana batera egitea, jasotzen den dirua denontzat izatea. Gizarteak hori ikusi behar du”


Martxoak 8

Jakin badakite emakume hauek martxoaren 8a zergatik ospatzen den. Chicagoko enpresa hartan hil ziren emakumeen historia ezagutzen dute. Esan digutenez, “gu moja izan aurretik emakumeak gara. Egun hori behar bada ez dugu espreski ospatzen baina go-goan izaten dugu. Elizan ere legeak gizonak egiten dituzte eta guk gogor borrokatu behar dugu gutxienez kontuan izan gaitzaten lege horiek idazteko orduan. Alderdi horretatik berdintasuna nahi dugu eta konturatzen gara desberdintasun batean bizi dela gaur egun emakumea. Ikusi dugu aldatek izan direla baina bide luzea dago oraindik”.



Krisi ekonomikoak izan du eragina mojen lan eskarian.

Ezberdinak al gara andreak eta gizonak?



OSCAR MALBAR
20 urte, injinerua

Ez. Beharbada gizonek gauza batzuk hobeto egiten dituzte indar gehiago dutelako baina ostantzean edo zertarako gai gara biok. Are gehiago, nik uste emakumeak hobekak direla.



ANGEL M. KORTABERRIA
49 urte, montatzailea

Fisikoa aparte lagata ez, berdinak gara. Matxismua ondiok badao, gero eta gutxio halere. Gure tailarrian, adibidez, emakume mordo batek eitzen dau lan.



JUAN RODRIGUEZ
41 urte, torneroa

Bai, fisikoki, sentimenduen aldetik ere sentsibleagoak dira emakumeak... Intelektualki eta lanari dagokionean berdinak gara eta hori gero eta gehiago onartzen da.



NEKANE ITURBE
35 urte, irakaslea

Ez, baina desberdin egiten gaitu gizarteak, hezkuntzak... Etxean ikusten da benetakoa desberdintasuna. Lanean gauzak orekatzen ari dira baina egiteko asko dago.



ANE GOIKOETXEA
50 urte, ikaslea

Fisikoki bai. Oraingo desberdintasuna ez da egiazkoa. Lastre asko arrastratzen ditugu historikoki eta gizonezkoek ez dute aldatzeko predisposizioirik.



M. JESUS SANTOS
43 urte, etxeandrea

Ez gara, baina egoera ezberdinak bizi ditugu bai lanean, bai etxean... Zerbait aurreratu dugu baina lanean gauzak oraindik asko hobeto behar dira.



MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ (943) 20 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

POL-POL
T A B E R N A
San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR



karkizano
San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49



Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 74 08 49

Bizirik dirau matxismoak?

Oraindik ere matxismoa bizirik dagoela uste dut. Are gehiago, bizirik jarraituko duela esango nuke azken batean horren aurka borrokatu beharko genukeenok, emakumeok, askotan matxismo hori bultzatu egiten baitugu, bai etxean bai kalean.

Egoera askotan gure buruaren aurka botatzen ditugu harriak. Esate baterako, lagunak etxean elkartzen direnean, gizonetakoak eserita egoten dira emakumeek dena prestatu eta jatekoa ateratzen duten bitartean. Zer esanik ez dena jasotzeko ordua iristen denean, "emakumeak dau-den tokian, nola egingo dute lana gizonek!"

Oraindik orain emakume batzuei gaizki iruditzen zaie gizonetakoak "emakumeen lanak" egitea.

Gainera, umeak garenetik erakusten dizkigute gauza batzuk neskenak direla eta beste batzuk mutilenak. Eta guk seme-alabak horrela hezitzen ditugu.


Bikote mailan gauzak aldatzen ari dira poliki-poliki baina asko kostata. Gizonetako askok "laguntzen" dutela esaten dute eta arazoa hor dago, guk ez baitugu "laguntzarik" nahi, ardura baizik. Etxetik kanpo lan egiten duten emaku-



MARI JOSE HERNÁNDEZ

me asko euren etxeko arduradunak dira %100ean. Ez diete senarrei etxeko lanak egiten "laguntzen", etxeko ardura hartzen dute, gizonetakoak ez bezala.

Gure esku dago egoera aldatu eta desberdintasunez betetako gizartea desgertaraztea. Gure seme-alabak "persona" bezala hezi behar ditugu, ez "mutila" edo "neska" bezala.



iSPI- DEGIRA



VICENTE CONCHA

Mezularia

- **Noren mezu bat jasotzeak egingo lizuke ilusioa?**

- Arjentinan senideak ditut eta ez ditut ezagutzen. Haien berri izateak ilusioa egingo lidake.

- **Eskutitzak idazteko ohiturarik ba al duzu?**

- Ez, soldadutzan gutxi batzuk idatzi nituen baina ostantzean sekula ez.

- **Komunikazioa idatziz, telefonoz, internet bidez...** - Telefonoz.

- **Zein galdera luzatuko zenioke alkateari?**

- Zergatik ez duen Gaztetxearen aldeko pausorik ematen.

- **Zein abesti bidaliko zenioke neska bati konkistatzeko?**

- Kamela taldearen edozein, nire neskalagunari asko gustatzen zaio eta.

- **Furgoneta ala motorra?**

- Lanerako furgoneta baina bidaiatzeko motorra.

- **Zergatik?** - Emozionanteagoa delako, adrenalina guztia botatzen duzu.

- **Lehenengo musua noiz?**

- Ez dut ia gogoratzen, 14 urterekin edo.

- **Zein da zure bokazioa?**

- Umetan mekanikoa izan nahi nuen baina gidatzea ere asko gustatzen zait.

- **Afiziorik?** - Astebukaeretan taberna batean musika pintxatzen dut. Hori da nere afizioa.

- **Zein musika klase atsegin duzu?** - Bakailoa asko baina edozer gustatzen zait flamenkoa izan ezik.

- **Zerk beldurtzen zaitu?**

- Dula gutxi batek koska egin zidanetik, txakurrek.

- **Zein plazerreri egingo zenioke uko?**

- Lo egiteari.

- **Zer da denbora?**

- Bizitzak dituen zati txiki eta mugatuak.

- **Zein gaitasun izan nahi zenuke?**

- Malabarista izatea edo.

- **Zein izango litzateke zure ametsetako bidaia?**

- Irla desertu batera joatea, eguzki, ur garden eta hondartza zuriekin.

- **Eta zer eramango zenuke?** - Nire neskalaguna.

- **Zer nahi zenuke jasotzea egin duzun km.**

- **bakoitzeko?** - Urre gramo bat.

● Merkatarien bilera greba dela-eta

Joan den astearte iluntzean herriko merkatariak bilera egin zuten HBk deitutako greba dela-eta. Dendariak kezka zeukaten greba deialdiari eman beharreko erantzunaren aurrean. 55 dendari elkartu ziren guztira eta erabaki konkreturik hartu ez bazuten ere, norberak nahi duena egiteko eskubidea duela argi geratu zen. Hortaz, dendak irekitzeko asmoa azaldu zuten askok, “egunean bertan gauzak nola gertatzen diren ikusiko behar den arren”.

● Sutea Pedro Muguruzan

Joan den ostegunean, arratsaldeko 8:30etan propa-nozko berogailu edo kaldera batek su hartu zuen Pedro Muguruza etorbideko 8ko atiko batean. Atiko horretako balkoian kokaturik zegoen kalderako sua, tubo batzuen bitartez-edo, aldameneko ganbara batera pasatu zen. Sute txikia izan arren, kalte materialak sortu zituen istripuak, ganbaretan gordeta zeuden liburu eta antzerako objektuak gehienak. Eibarko suhiltzaileek istripuaren lekura iritsi eta sua itzaltzeari ekin zioten. Itzaltze lanak errazte aldera azken hiru solairuetako etxebizitzetako bizilagunak etxeetatik irtenarazi zituzten. Zorionez, ezbeharrean ez zen inor ere zauritu.

● Mahaiko jokoak Jubilatuen Etxean


Jubilatuen Etxeko zuzendaritzak jakinarazi nahi du datorren astelehenean, hilak 10, amaituko dela mahaiko jokoe-tan izena emateko epea. Jokoa hauexek izango dira: musa, tutea, briska, seikoa, eskoba eta dominoa. Irabazleak eskualdeko bigarren faserako sailkatuko dira. Izena emateko Jubilatuen Etxeko zuzendaritzatik pasatu goizeko 10:30etatik 12etara bitartean.

Martxoaren 16tik elizako kanpaiak berriz joko dute 7 urtez isilik egon eta gero

San Bartolome parrokiako kanpando-rreko kanpaiak muntatzen aritu dira aste osoan zehar kanpaietan adituak diren Santanderreko familia bateko bi kide. Zeregin honetan eman dute aste osoa eta datozen egunotan lanak bukatuta egotea espero dutela esan digu Luis Bilbao elizako lanen batzordekoak. “Martxoaren 16an, igandea, 10:30etako mezatan kanpaiak joko dabez 7 urtian ixilik egon ostian. Ordu horretan jendia ondiok lotan egoten danez, poliki hasiko gera eta gero progresiuan segitxu”.

Kanpaien historia

Lau kanpai daude dorreko lehiatila bakoitzean, guztiak tamaina ezberdinekoak, jotzerakoan nota ezberdinak sor ditzaten. Zaharrena 1600. urte ingurukoa da, eliza



egin baino lehenagokoa. Besteak 1932, 1962 eta 1803. urteetakoak dira. Kanpaiak lehengoak badira ere, mekanismo guztiak berriak jarri dira.

Aparteko soinua omen dute elizako kanpaiak, “badakizu, herri bakoitzian norberana izaten da onena”. Apartekoa izan ala ez, kanpaiak historian zehar izan duten funtzioa oso garrantzitsua izan da. “Oingo adelanturik ez zauanian, kanpaien bidez zabaltzen zian herriko berrixak”. Sute bat zegoenean edo “agonia” delakoa zenean kanpaiak jotzen ziren. Gerra garaian hegazkinak zetozenean ere kanpai-hotsak entzuten ziren. Hiletetan, hildakoa baserrikoa ala kaletarra izan kanpaiak ezberdin jotzen zuten, bai eta hildakoa umea, “aingerua”, bazen ere. Elizkizunak hastean ere kanpaiak abisua ematen zuten. “Meza motzak bazian kanpai txikiak jotzen zaban eta jaixetako mezia zanian, kanpai haundiak”.

Anjelus-a 12etan

Joan den abenduaren erlojua martxan jarri zenean, aspaldiko ohitura bat berreskuratu zen: anjelus-arena. Bilbaok esan bezala, “12ak eta 5etan erlojuak hiru joaldi motz eitzen ditxu, hiru bider segidan, eta, gero, bederatzi joaldi geratube. Horixe da Anjelus-a”. Erlojuak Alemaniatik ekarritako memoria bati esker funtzionatzen du. Anjelusa, t’erdiak, laurdenak eta orduak grabatuta daude bertan, eta nazioarteko erloju-hotsen berberak dira.

Jaietako istiluetan atxilotutako gaztea errugabetzat jo du Auzitegiak

1996ko San Bartolome jaietan gertatutako istiluetan Ertzantzak atxilotu zuen Plazentziako gazte errugabe dela erabaki du Donostiako Lurralde Auzitegiak. Sententziaren arabera ez da frogati istiluetan parte hartu zuenik, frogatu den bakarra apurtutako botila bat eskuetan zeukala da. Ertzainen bertsioa zailantzan jarri du Auzitegiak eta analisi psikologikoek ondo integratua dagoen gaztea dela diote. Senten-

tziak komunikabideak sailatzen ditu alde zurretik koktelak jaurtitzen ibili zela esan zutelako eta balio-

gabe uzten du adin gutxi-koen epaileak Plazentziko gazteari ezarritako hiru hila-beteko zigorra.



artxiboa



Elgoibartarrak Lilaton lasterketan

Pasa den domekan argazkiko emakume elgoibartar talde hau eta agertzen ez diren beste batzuek ere, Donostiako Emakume Taldeak antolatzen duen Lilaton lasterketa ezagunean parte hartu zuten. Korritzen aritu zirenek giro ezin hobean burutu zutela lasterketa esan digute. “Udaletxe inguruan hasi eta 5 kilometro dira, Udaletxean bertan bukatzen delarik”. Joan ziren elgoibartar emakumeen artetik helmugara iritsi zen lehena Pilar Arriola lasterkaria izan zen. Hona hemen argazkiko izenak: atzean tente, Pilar González, Izaskun Estibariz, Pilar Arriola, Rosa Alamino, ezezaguna, Ana Fernandez, Luisa Paramio eta Ana Maiztegi. Erdian makurtuta, M. Jose Estibariz, Lourede Zubiaurre, Arrate Zubia, Pilar De La Lama eta Laura Santobeña. Eserita aurrean, Maria Rebollo, Elena Etxaniz, Gloria Santiago, Blanca Rodrigo, Asun Garcia, Oihane Garate, Leire Garate, Miren Esnaola eta Izaskun Esnaola.



Haizea eta Emakumearen Eguna



Martxoak 8, Emakume Langilearen Eguna aitzakia hartuta, Haizea Emakume Taldeak erakusketa antolatu du martxoaren 10era arte. Argazkia joan den larunbatekoa dugu, inaugurazio eguneko. Egunean bertan ikusle mordoa hurreratu zen Kultur Etxera erakusketa osatzen duten emakume elgoibartarren koadroak ikustera. Ekitaldi honetz gain, asteartean anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia izan zen Kultur Etxean. Ostiralean, hilak 7, “Secretos y mentiras” pelikula emango da Herriko Antzokian gaueko 22:30etan eta larunbatean, herriko emakumeentzako bazkaria antolatu dute Aubixan martxoaren 8ko ospakizunei amaiera goxoa emanez.

● Central Hispanoren aurkako erasoa

Errosario kaleko Central Hispanoren sukurtsalaren aurkako erasoa izan zen joan den asteartea gauean. Erasoa gaueko 10ak laurden gutxiagotan gertatu zen. Erasotzaileek harriak jaurti zituzten Hispanoko bulegoaren hiru eskapareteen kontra, hiru kristalak hautsiz. Hurrengo egunean, apurtutako eskapareteen ondoan aurkitu zituzten erasotzeko erabilitako harriak. Kalteak zenbatekoak diren kalkulatu ez dituzten arren hiru kristalak berriak jarrri beharko dituztela esan digute Hispanoko arduradunek. Euren esanetan, “azken erasoa koktel molotov-ekin izan zen eta duela urte t’ erdi bat edo, harrika egin zituzten”.

● Iker Astigarragak Mankomunitateak antolatutako jostailu lehiaketa irabazi du

Deba Beheko Mankomunitateak Debaldea izeneko al-dizkariaren bidez antolatu duen birziklatutako objetuekin egindako jostailuen lehiaketan Iker Astigarra, Pilar ikas-tetxeko ikaslea izan da irabazlea. 11 urteko gaztetxo honek mantekila tarrina batekin egin zion aurpegia panpinari. Gorpu-tzarentzat tetra brik bat erabili zuen, hantzeko antxoa latak eta eskuak botika tuboekin eginak daude. Ikerrek “Mauxitxa” izenaz bataiatu zuen jostailua. “Zergatik izen hori? “Mauxitxako zuzendariaren antza hartzen niolako”. Ikerrek hiru lagunentzako Port Aventura-bidaia irabazi du sari modura.



Maketatzaile berria BARRENen

Lau urte pasatxo BARRENeko maketatzaile lanetan eman ondoren, bere lanpostua lagako du Maite Rementeriak. Elkarteko langileei buruz Elgoibarko Izarrak duen filosofia errespetatuz, Maitek beste herritar bati lagako dio bere lekua, erretratuan bere alboan azaltzen den Mikel Cornejori, hain zuzen. Maiteri eskerrak eman beharko dizkiogu lau urteotan BARRENen itxura hain ondo landu eta zaintzeagatik. Mike-li, berriz, Maitek lagatako arrastoan aurrera egiteko zortirik onena opa diogu.

Paki Urainek eskuratu du berriro Kiroldegiko taberna

Kiroldegiko taberna zerbitzua ustiatzeko bi proposamen izan dira. Paki Urainek 55.000 pta. eskaini zituen eta bigarren proposamenak 45.000 pta. Hortaz, euskara maila elkarriketa bidez gaindituz zuenez Paki Urain egokitu zaio urtebeterako tabernaren ustiaketa.

Igeriketa zerbitzua ere eskaini zuen baina inork ez zuen proposamenik aurkeztu. Horregatik, boletinerari bidali berri dituzte oinarriak eta urteko zenbatekoa 3,5 milioi izatetik 4,5 milioira igo da.



Aerobic-a

Aerobic-a, berriz, adjudikazio fasean dago oraindik. Izan ere, hiru proposamen jaso ziren eta lehenengo bi postuetan geratu zirenek ez zuten hizkuntz eskakizuna betetzen, momentuz hirugarrenak zer aurkeztuko zai dago Patronatua. Ezer atarako ez balitz, berriz ere oinarria errebisatu eta deialdia egingo litzateke. Momentuz adjudikatu diren bi zerbitzuak masaia eta garbiketa dira, biak ere martxan.



Errotaxoren zerbitzu berria

Errotaxok telefono zerbitzu berri bat martxan jarri zuen duela hiru bat aste "drogomenpekotasunen eta HIESari buruzko zalantza eta galdera askorentzat erantzunik ez duen jendea badagoela ikusi genuelako". Deitzen duen pertsonak ez du bere izenik azaldu behar. Zerbitzu honek momentuz ez ditu dei gehiegi jaso. "Galdera baten erantzunik ematerik ez badaukagu, informazioa non eman diezaioketen esango diogu, adibidez, HIESaren frogak non egin daitezkeen,... Pertsona batek hitz egiteko beharra

badu ere dei egin dezake edo egoitzara etorri eta gu-rekin egon". Errotaxoren egoitza Pedro Muguruzako eskoletan dago eta telefono zerbitzuaren zenbakia 74 24 47 da. Orduetgia: astelehen eta ostiral arratsaldeetan 6etatik 8etara eta asteazketan gaueko 9,30etatik 11etara.

Elgoibarren martxan jartzea komenigarri liratekeen zerbitzuen artean "VH positiboak diren autoleguntzarako taldea sortzea legoke". Duela urte batzuk saiakera bat egon zen baina ez zen gauzatu.



Gazte kristauen topaketa Elgoibarren

Joan den ostiral eta larunbatean Gipuzkoako 80 bat gazte Elgoibarren elkartu ziren adiskidetzeari buruzko topaketak burutzeko asmoz. Gazteak herriko familietan hartu zuten ostatu. "Esperientzia benetan berezia eta aberasgarria izan da, deskubrimentu pertsonal bat askorentzat. Otoitzaldiak modu berrian egin ditugu eta ondorio gisa esan daiteke, adiskidetzeari lortzeko lan asko egin behar dela oraindik. Hori lortzeko barkamena oinarritzko esperientzia dela uste dugu". Parrokiak, Donostiako Gazte Taldeak eta Taizeko Elkarteak eskerak luzatu nahi dizkiete herriko familiei, Pilar ikastetzeari, Goiko-Errota elkarteari eta Jubilatuen Etxeari.

● Pakito Linares Urrusoloren programan

"Pakito" elgoibartar ezaguna, Plaza Handiko ONCEko bulegoko saltzailea, Antxon Urrusolok aurkeztu duen "El tiempo lo dirá" programan agertuko da martxoaren 19an, asteazkena, gaueko 10ak laurden gutxitan hasiko den saioan. Programa pertsona handi eta txikiei buruzkoa da. Platoan bertan hizlari modura parte hartzeaz gain, Pakito eguneroko bizimoduaren nola moldatzen den erakusten duen erreportaia ere emango dute.



NIEVES LOIOLA:

”Agrarian kontsultore, psikologo eta konfesore lanak ein bihar izaten ditxut”

42 urte dituen emakume hau San Migeleko Sagarraga baserrian jaio zen. 1980tik Nekazari Ganbaran egiten du lan, besteak beste, Deba Beheko baserrietako ganaduaren errolda gaurkotu eta finkatzen. Halere, esan digunez, beste gauza asko egitea ere tokatzen zaio. Izan ere, aspaldian Nieves inguruetako baserrietako “kontsultore, psikologo eta konfesore” bihurtu baita. Hara zer kontatu digun.



– Zer da Nekazari Ganbara?

- Lehenengo-lehenengo hasi zan baserritarren seguridade sozialeko koutak kobratzen, altak eta bajak... 86xan Kutxa bidez domiziliatzen hasi zan. Segitzen dou altak, bajak eta holakuak eitxen, deklaraziua ere bai, baina pisurik haundixena ganau kontuak daka.

– Esate baterako?

- Hasi saneamendu kanpainak eta gero behi bakoitzan inguruan dauan papeleo guztia, gero eta gehixo dana. Gaur egun ume batek baino papeleo gehixo eskatzen dau ganauak: jaixotzen dianian apuntau ein bihar dia, gero kontroladora belarritakua ipintzera bialdu bihar da, gero hasten dijuazen neurrixan txakorrek baldin badiaz primak daukez eta tramitatu, hiltzen dianian eta saltzen ditxuenian baja eman bihar da...

– Aldaketa guztiak kontrolatuta, beraz.

- Bai, gainera buru asko dau. Deba Behea eruaten dot nik eta danera 5.000 buru egongo dia. Garbitxasuna eta gaixotasunak kontrolatzeko ein bihar da kontrola.

– Larre edo esne behiak daude gehiago?

- Hemen larrekuak. Eshedunak ere badaude baina dedikazio gehixo eskatzen dabe. Kalian lan eitxen daban baserritarrak ganaua euki nahi izaten dau eta larreko behiak askoz libro lagatzen dabe.

– Zer da belarritakoaren kontu hori?

- Baserri bakoitzak zenbaki bat daka eta zenbaki horrekin numeratzen da baserritarrak dakan propiedade guztia eta behixeri ere belarritakua jartzen jakue zenbaki horrekin.

– Ohitu al dira baserritarrak horrenbeste papelekin?

- Nahiko familiarizatuta daude. 1982xan izan zan estraineko ganadu kanpainia eta baserrixetan ere ibili bihar izan nitzan. Ordurarte ezer ein be zeuden ohitxuta baina ikusi dabe gauzak oin beste modu batera eitxen diazela eta euren onerako dala azkenian. Gainera, laster hasiko gera bakoitzari tarjeta bat ematen eta hemendik aurrera etortzen diazenian karneta, seguridade sozialan txartela eta beste mila papel ekarri biharrian, tarjetan bakoitzan datuak sartu eta hori ekartziaikin nahikua eukiko dabe.

– Kontsultore, sikologo...

- Bai, danetik ein bihar izaten da. Hona etortzen dia baserritar batzuk zabaldu ere ein gabeko kartekin. Usain rarua hartzen diue, eta neregana etortzen dia, ia zer dan edo. Beste batzuk jata karpeta guztiakin, papel zahar mordo bat bertan, nik ein bihar izaten diuet garbiketia, zeinek balio daban eta zein bota...

– Konfidantza duten seinale.

- Bai egixa da. Batez ere mutil zaharrak eta bakarrik bizi diazenak askotan etortzen dia, batzuetan berba eitxeko gogua eukitzen dabe eta hona etorri, eseri eta edozer kontatzen die. Pentsatzen dabe nik dana soluzionauko diuetela. Segiduan igertzen diuet.

– Baserritarren intuizioa.

- Hori izango da. Egixa da lan honetan asko laguntzen dabala baserritarra izatiak eta nik jende asko ezautzen dot, lehen San Migelen tabernia euki gendun, erromerixa askotan ibilitxakua naiz... Segitxuan ulertzen dozu zer esan nahi daben, sensibilidade hori dakazu.

Mendi-garbitzea

Ekainean hasi eta azaroa abendua bitartean izaten omen da garairik onena basoak garbitzeko. Desbrozadorak hartu eta lurrean dagoen sastraka, belar luze eta sasiak moztu egin behar dira baldin eta pinuak ondo mantendu nahi badira. Talaixa baserriko Dionisio Txurrukak azaldu digunez, “esate baterako oin dala urte batzuk izan zian lehortien ondorioz sortu zian sutietan, basuak garbi zakenak lortu zeben salbatzia pinu batzuk. Bestiak, berriz, segiduan hartu zitxun suak”. Gainera, urtero garbitzea komeni da, “lurra bigunaua egoten dalako. Ostantzian, lagatzen badozu hiru lau urtian garbitxu gabe, gero garbitzen hastia gaiztuaua izaten da”. Horrez gain, lurra ezezik, pinuak ere ahalik eta egoera onenean egotea komeni da, “8 urtian behin edo adarrak moztu ein bihar jakoz”.

Landarea sartu

Dionisiok Gabon inguruan sartzen omen ditu landareak, “kontuan euki bihar dia gauza asko, zein lur tipo dan, terrenua aldapan edo lauan dauan... Horren danen arabera pinu klase diferentia sartzia komeni izaten da”. Terrenoa aldapan dagoenean pinu bakoitzaren artean 2 edo 2,5 m.ko tarteaz uztea komeni da, “bestela, nahiz eta behian ondo daudela ematen daban, gero hazten diazenian goixan topo eitzen dabe”. Pinuentzako lurrik onena sendoa da, “behin indarra hartutakuan segitxuan urtetzen da pinua. Dana dala, lurran klasian araberakua izaten da pinua ere bai”.

30 urte

Gaur egun Euskal Herrian pinua nagusitzen da paisaia ia gehienetan. Arrazoa? Behin baino gehiagotan esan izan dugun bezala, urte gutxiren buruan diru gehien ematen duen zuhaitza iza-

tea. Dionisiok azaldu digunez, “badaude terreno batzuk ez pinurik ez beste ezer sartu gabe. Horrek zikindu eitzen dia, igual jendiak ez ditxu garbitzen eta etekinik ez dabe ematen. Horregatik hobe da zeozer landatzia. Eta urte gitxien bihar dabana hartzeko pinua da. 30-40 urteren buruan botatzeko listo daon zuhaitza da”.

Kokoa

Nork ez du behin edo behin mendian gora joan eta pinuetara begiratzean boltsa edo hari zuri moduko batzuk zintzilik ikusi? Edo mendibidean ilaran joaten diren har moduko mamorroak? Horiek kokoak omen dira, pinuak jan eta usteltzen dituzten zomorroak. Lehorte garaia izaten da txarrena, “horregatik, abioia-kin pasatzen dabe eta likido moduko bat botatzen pinu gainera. Horrek beltz-beltz lagatzen ditxu pinuak, zikinik gabe”.



Gaur egun pinadiak nagusitzen dira gure iguruko parajeetan

TALAIXA baserria

Urtian gora abantatuta dago Talaixa baserria. Ate eta leiho gorridun baserria da, horma zuri-zuriekkin, dotorea benetan. Zazpi pertsona bizi dira gaur egun bertan. Dionisio eta Manuelarekin izan gara berriketan eta euren etxeko paisaia, ezergatik aladatu ez luketela igarri diegu begietan.

Dionisiok betidanik baserrian ezezik kalean ere egin izan du lan, jubilatuta zen arte. Lana bi bider egin behar, beraz. Berak esan bezala, “akordatzen naiz zela tailarrian jendia kejau eitxen zan ordu asko sartu bihar izaten genitxulako. Nik esaten niuen ez zakela zertan kejau biharrik, tailarrian orduak sartu eta gero, baserrixan berriz ere lana ein biharra nakala nik eta”. Hala da, izan, baserriko bizimodua, “eguzkixa goixan dauan bixartian, beti zeozer eitxeko”.

Manuelak ere badaki kalean lan egitea zer den, “urte batian udan Altzolako bainuetxian egon nitzan lanian. Oso gustura egon nitzan, etxeko andriak ere propina eta guzti pagau zian eta hurrengo urtian berriz juteko esan. Baina, aitxa gaizki ipini zan eta ezin izan naban baserrixa laga. Oin Altzola toki tristia da baina lehen han egoten zan anbientia!”.

Basorik garbiena

San Migelen, Urtia inguruan dago Talaixa baserria. Paisaia benetan ederra ikusten da goitik, kale zuloan ez bezala. Aspaldian eguraldi eguzkitsuak dira nagusi eta horietan atarira atera eta herriko zein inguruko mendietako edertasuna bete-betean iristen zaie begietara Txurruka-Zabalatarrei. Euriak ari duenean, berriz, “telebisiua edo ikusi eta listo. Aspertzerik ez dao!”. Kalean izan omen zuten pisua baina, “ez genduan erabiltzen eta azkenian laga ein genduan”.

Dionisio eta Manuelak bi seme dituzte. Horietariko bat baserrian bizi da eta bestea kalean, “baina gutako inor ez da txikiteozalia eta kaleko semia ere egunero ixotzen da baserrira ganaua eta gobernatzera. Laguntzera. Holaxe ohitxu gera gu, baserrixan jaio eta baserrixan bizi”.



Frutarbolak

Madariak, gereziak, melokotoiak, sagarrak eta mizperak. Horiek guztiak dira Talaixa baserriaren bueltan dauden frutarbolak. Urtero, sasoiari sasoiko kilokada dexente fruta jasotzen dituzte eta Dionisio berak esan bezala, “alde haundixa dao zuhaitzetik zuzenian hartutako sagar bat edo kalia erositxako bat jaterakuan!”. Zuhaitza loratzen hasten denean sulfatoa bota eta beheko aldean karea, zomorroak hiltzeko. Besterik ez. Laster hasiko dira gereziondo eta melokotoiondoak loratzen eta baserri ingurua fruta zapoz gozatzen.

Nabari zaie, bai, gustuko izan eta lana gogor egiten dutela. Izan ere, joan den urteko Gabon Zahar ferian, Talaixa baserriak irabazi zuen herriko basorik garbienak mantentzen dituenari ematen zaion saria.


Benidorm

Gaur egun jubilatuta dago Dionisio eta bikoteak esan digunez, orain inoiz baino hobeto bizi dira. “Baserrixak lotura haundixa daka. Guk oporrik sekula ez gendun euki baina oin jubilaziuakin eta semiak dakanez baserriko arduria, urtian behin irteera bat eitxen dou Benidorm aldera”. Hilabete pasatzen dute Benidorm-en, “hango klimia oso ondo etortzen jata artrosisantzat”, esan digu Dionisio, “eta hara jutia gustatzen jaku, trankil ibili eguzki epelatan”. Eguzki epelaren goxotasuna gustura hartzen da urteko edozein sasoiari. Manuelak esan bezala, “ez da normalea sasoi honetan holako epela eitxia baina, dauan bitxartian disfrutau ein

bihar. Gero etorriko da datorrena! Akaso ona eingo dau!”.

TALAIXA

- **Auzoa:** San Migel
- **Bizilagunak:** Dionisio Txurruka, 76 urte; Manuela Zabala, 74 urte; Jose M. Txurruka, 41 urte; Amaia Etxeberria, 37 urte; Iker Txurruka, 8 urte; Olatz Txurruka, 8 urte eta Igor Txurruka, 2 urte.
- **Hedadura:** 12 hektarea.
- **Esplotazioa:** Baratza, oiloak, behiak, txahalak, frutarbolak eta pinadiak.



IBILBIDEA

Markinako bidea hartu eta 7 km.ra dagoen San Migel edo Urkarregi gainera igo behar da lehenik.

■ **1** San Migel gainean, ezkerreko bidea hartu eta kotxea pilotalekuaren aurrean utzi eta gero, asfaltatutako pista jarraitu.

Pista honetatik jarraituz Mugertza, Borrajen, Uba eta Uba Txiki baserriak zeharkatzen dira. Uba Txiki baserriaren eskuin aldean dagoen pista jarraituz iristen da Morkaikoko gurutzerara. 500 m.ko altuera duen mendira iristeko 35' inguru behar dira. Halere, bada beste ibilbide bat. Uba Txiki baserriara heldu eta gero eskuinaldeko bidea

hartu beharrean aurrera jarraitu behar da Kalamua magalera iritsi arte. Bertan, Iru-Iturri hurbil dagoela adierazten duen poste bat dago. 7 minutura dago aipatu iturria.

■ **2** Atsedena hartu eta ura edan daitezke. Morkaikora abiatzeko zuriz eta gorriz margotutako harriak jarraitu behar dira gurutzeraino iritsi arte.

■ **3** 55 minutuko ibilbidea da. Mendi gaineratik Elgoibar, Arrate, San Pedro, Kalamua eta abar ikus daitezke. Gurutze inguruan gerra zibileko trintxeren enterramenduak daude.

Lehenengo proposameneko bidetik jaitsiz itzuli daitezke San Migelera edo,

bestela, badago beste aukerarik. Markinarrantz doan 6213-E jarraituz autobus geltokira iristerakoan eskuin aldera dagoen pista ikus daitezke.

■ **4** Pista hori jarraituz San Migeletik 75 minutura dagoen Laborain mendia sartaldeko hegala zeharkatu eta gero, ordu t'erdira Arnoateko mendibizkarrera iristen da. Bertan iturri bat dago, orain gutxi berriro dutena. Bertan dago, baita ere, Mutriku, Elgoibar eta Markina banatzen dituen 1884 urteko mugaria eta Arnoate baserria. Gero San Migelera jaitsi.

Ibilbide guztia egiteko 4 ordu inguru behar dira.

Kontuan izatekoak

A. San Migel edo Urkarregi auzoa. Bertako basiliza 1845. urtean eraiki zen eta pilotaleku ederra ere badago. Etxeberriako biztanleen arabera, Urkarregi izena Markina inguruko epaituak urkatzen ziren tokia izategatik dator, "Urkamendiko aldapa harritsu" izateatik.

B. Arnoateko mendi-bizkarraren pasabide garrantzitsua izan zen Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko harremanetan. Diotenez, erromatar galtzada batek zeharkatzen zuen. Horrez gain, Arnoate baserriaren aurrean, Mutriku, Markina eta Elgoibar mugatzen dituen mugaria ere dago.

C. Iru-Iturri ingurua.

D. Morkaiko mendiak 520 m.ko altuera du eta San Migel ermitaren inguruan dago kokatua. Tontorrean gurutze bat dago.

Iturria: Deba Deheko gida turistikoa.

30 urte dituen elgoibartar honek irratigintzan pasa ditu azken 10 urteak. Txikitatik garbi izan du kazetari izan nahi zuela, are gehiago, irrati esataria. Nafarroako Unibertsitatean ikasketak amaitu surretik ezagutu zuen mikrofono baten aurrean jartzea zer den eta duela urte-t'erdira urte Onda Ceron izan da lanean, Salamancan. Momentu honetan eszedentzia dauka baina berehala hasi nahi luke. Bere ilusioa gaueko 12etatik 2etara bitartean irrati programa bat egitea da.

ANA ISABEL PEREZ

“Irrati esatari batek seduzitu egin behar du”

- 12 urterekin kazetari izan nahi zenuen.

- Anaiak turismo ikasketak egin zituen eta osatzeko Ingalaterrara joatea erabaki zuen. Han zegoela, kazetaritza ikastea pentsatu zuen. Orduan argia piztu zitzaidan, kazetaritza nire lanbidea zela ikusi nuen.

- Irrati esataria.

- Bai, irrati betidanik gustatu izan zait. Gogoan daukat nola irrati estudioak imajinatzen nituen, publiko zegoen ala ez, musika zuzenean zen... Nik irrati lan egin nahi nuen.

- Eta lortu zenuen.

- Bai. Karrerako hirugarren mailan nengoela, nire kontura hasi nintzen praktikak egiteko aukera bila. Radio Cadena Españolak Calahorran eskaini zidan aukera udan praktikak egiteko. Hiru hilabetetan gauza asko ikasi nituen, askatasun osoa nuen

estudioan ibiltzeko, grabaketak egiteko, erreportaiak, publizitatea... Denetik.

- Gogoratzen lehen esperientzia mikrofono aurrean?

- Gogoratzen dut orduan konturatu nintzela mikrofono baten aurrean eta zuzenean hitzegiteak suposatzen duen ardurak. Zuk hitzegtzen ez baduzu, beste aldean dagoenak ez du ezer entzuten. Eta mikrofono aurrean ezer esan gabe zauden segundo horretan, isiltasuna entzun egiten da.

- Zer ez da egin behar irratiari?

- Komunikabide idatzietatik kopiatu. Bi komunikabide desberdin dira eta irratia duen bat-batekotasun horrek bultzatuta, berriak gaur eman behar ditu, ez bihar. Bihar egunkarian irakurriko ditugu albisteak.

- Nolako izan behar da?

- Azkarra, efikaza eta albiste ahalik eta zehatz eta garbien idatzi behar da.

- Maniarik ba al daukazu?

- Edozein prentsaurreko-tara joan beharra dudanean, folio baten alde bat bakarrik idazten dut, eskema batean ideia nagusiak jasoz. Hortik aurrera gehiegi da, lana zailtzen du eta mamia baino betegarria joaten da.

- Profesionalki lehen lana Radio Navarran izan zen.

- Bai. Beka bat eskaintzen zuten Radio Navarra/Antena 3 irratiarako. Aukeratu egin ninduten eta bertan geratu nintzen lanean. Informatiboak tartekatutituen Radio 80 Serie Oro emisorako musika aurkezpenarekin. Amaitu zitzaidan Onda Ceron hasi nintzen lanean Salamancan eta fijo egin ninduten. Informatiboetan jardun nuen baina 1995ean eszedentzia eskatu nuen, oso agobiatuta sentitzen nintzen eta.

- Eta orain?

- Berriz eskatu dut lanean hastea eta zain nago. Birtartean Gironara joateko asmoa daukat animatzaile turistikoa lan baterako. Halere nire ilusioa irrati itzuli eta egunen batean gaueko programa bat egitea da.

- Zure ahotsa irrati entzutea atsegin duzu?

- Orain zurekin hitzegtzen nire ahotsa normala iruditzen zait, baina egia da irrati estudioan zaudenean mikrofono baten aurrean eta aurikulareetatik entzuten zuzenean, zure ahotsaz maitemindu egiten zarela. Izan ere, entzulea erakarri egin behar duzu eta horretarako zure ahotsaz seduzitu egin behar duzu.

BESTEAK ESANA

“Pertsona integroa da. Kazetaritza izugarri gustatzen zaio. Oso langilea eta polifazetikoa da” .
OLGA ZENGOTITA



OTSAILEAN

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Eider Garate Pérez (Otsailak 3)
- Maialen Uriguena Landa (Otsailak 12)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Josefa Urkidi Malaxetxeberria, 91 urte (Otsailak 2)
- Jose Arriola San Martin, 60 urte (otsailak 5)
- Aurelio Mugerza Larrañaga, 84 urte (Otsailak 6)
- Julia Bernal Badillo, 94 urte (Otsailak 7)
- Maria Agirremalloa Kalzakorta, 71 urte (Otsailak 10)
- Jose Ramon Froilan Pérez, 56 urte (Otsailak 12)
- Ladislao Elorza Zubiaurre, 77 urte (Otsailak 12)
- Maria Dolores Iriondo Ansola, 73 urte (Otsailak 13)
- Ramon Aierdi Larrañaga, 47 urte (Otsailak 18)
- Mari Carmen Urrusolo Etxaburu, 69 urte (Otsailak 20)
- Antonia Barturen Abando, 88 urte (Otsailak 20)
- Maria Luz Abascal Ibieta, 82 urte (Otsailak 24)

G O G O R A T U Z

Francisco Ansola Juaristi "Pacorro" (1914-1977)



- 1914ko maiatzaren 11n jaio zen Errosario kalean eta zazpi anai-arreben artetik seigarrena zen.
- Oinarrizko ikasketak Eskola Publikoetan egin ondoren Don Erasmoren eskolan ibili zen eta geroago Frantzia ikasketa erlijiosoak egin zituen.
- Handik etorrira, Errosario kaleko Iglesias anaien harategian txofer eta harakin lanak egiten ikasi zuen.
- Lucio Loiolaren etxean txofer izan zen.
- Gerra sasoiaren frentean borrokatzea tokatu zitzaion.
- C.D.ko botikinaren kargua izan zuen.
- Markinako "Ansotegi" baserriko Teresa Aginagarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.
- Sigman urte batzuk lan egin ostean, txofer ofiziala izan zen. Munduko txoko guztietako arrazako pertsonak lantegira ekarri zituen bai eta bidaiari mordoa ere.
- Jatekoarekin oso sibirita zen, makina bat mokadu gozo egindakoa eta munduko puru marka guztiak erretakoa.
- Gizon alaia zen. Abestea gustatzen zitzaion, baita Kamiñeroko frontoian pilotan jokatzeko eta futboleko aritzea ere.
- 1977ko ekainaren 16an hil zen.

HEZIKETA IRAUNKORREKO PROGRAMA

1997.ko Martxoa, Apirila eta Maiatza

AUTOMATIKA Hasiera Orduak

■ Eskema elektrikoaren interpretazioa	97.3.17	15
■ Eskema pneumatiko eta hidraulikoaren interpretazioa	97.3.17	15
■ Mekanikarietzako elektrizitate industriala	97.4.7	50
■ Automatak	97.4.7	40
■ Neumatika industriala	97.4.28	40
■ Hidraulika industriala	97.4.28	40

INFORMATIKA Hasiera Orduak

■ Windows 95	97.4.1	21
■ Windows 95	97.5.19	21
■ MS Word	97.4.10	30
■ MS Word II-Maila Aurreratua	97.4.7	30
■ MS Access	97.4.7	30
■ MS Access	97.4.24	30
■ MS Access II-Maila Aurreratua	97.4.28	30
■ MS Excel	97.4.28	30
■ MS Excel	97.5.12	30
■ Internet	97.5.21	15
■ Internet	97.5.26	15

FABRIKAZIOA Hasiera Orduak

■ Tornu CNCaren Programazioaren Sarrera	97.4.7	40
■ Fresagailu CNCaren Programazioaren Sarrera	97.4.7	40
■ CNC Tornu Erabiltzaileentzako Programazioa	97.4.28	40
■ CNC Fresagailu Erabiltzaileentzako Programazioa	97.4.28	40
■ SMARTCAM	97.4.28	40
■ Barneratze elektroerosioa	97.5.19	40
■ Hariz eginiko elektroerosioa	97.5.19	40

DISEINUA Hasiera Orduak

■ Planoen Interpretazioa	97.5.19	40
■ AutoCAD v.13	97.4.7	40

KALITATEA Hasiera Orduak

■ Kalitatearekiko motibazioa	97.4.7	30
■ Normalizazioa eta egiaztatpena	97.4.21	30



INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

■ Erreminta Makina Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

■ Tel: 943 744132
Fax: 943 744153
E.mail: fundac03@sarenet.es
■ 8:30 tatik-13:00 etara eta
14:30 etatik 17:30 etara



Aste honetako erretratuak Lerunen atera zuten 1947ko martxoaren 15ean. **Maite Vallejo**k ekarri digu eta erretratuaren arrazoiak Demetrio Vallejori egin zitzaion omenaldia da. Demetrio Elgoibar futbol taldeko fundatzaileetariko bat izan zen eta Eibarko

Izarra eta Donostiako Esperanza taldeetan ere jokatu

zuen. Demetriok 36 urterekin utzi zuen futbolaren mundua eta omenaldia 13 urte beranduago egin zioten.

Erretratukoak nor diren, ezkerretik hasita: **German Uriguen "Etxegiña"** (♣), **Sebastian Planas** donostiarra (♣), **Demetrio Vallejo Astigarraga** (♣), **Jose Maria Ribero** (♣), **Julian San Martin C.D. Elgoibarko kapitaina**, **Eibarko kapitaina**, **Tiburcio Beristain** (♣) eta aurrealdean **Maite Vallejo**.



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK


NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



“Haundixan eta Realian gauza ezberdinak ikasi ditut”



Mikel
Elkoro-Iribe

- **Adina:** 20 urte
- **Zer ari zara ikasten?** Fabrikazio modulua IMHn
- **Belar artifiziala ala naturala?** Naturala
- **Zenbat txartel atera dizute aurten?** Lau hori eta gorri bat, azken hau injustua.

– **Zenbat denboraldi daramatzazu Handian?** - Aurten lelengua. Sansian egon naiz oin arte eta kontratua ez ziatenez berritxu Elgoibarrera etorri nitzan. Urte osua egon nitzan jokatu gabe. Konbokau ere ez ziaten eitzen eta azkenian amorratu ein nitzan. Jokatzeko gogua ere jun eitzen jatzu.

– **Haundian pozik?** - Bai, giro ona dao eta gainera nahiko aurrian gaoz. Bigarrenak gera momentu honetan. Bigarren bueltia hasi dou oin. Hasieria nahiko txarra izan zan baina inportantiena da oin ondo guazela.

– **Play-offean sartuko zarete?** - Bai, dudarik gabe. 16 talde gera eta lelengo lauren artian igoeria jokatzen da.

– **Lortuko al duzue aurten 2Bera igoetzea?** - Azken urtietan play-off batzuetan eon izan gera baina irabaztiana suertia izaten da. Lau partidu jokatzen diaz. Lelengua galtzen badozu kasik ez daukazu aukerarik. Hala ere, 2Bra igota ere, Elgoibargatik beti esaten dabe hirugarren mailako ekipua dala. Bigarren mailan desplazamenduak luziauak diaz, diru gehixo bihar da...

– **Taldean zein da zure postua?** - Aurrian edo erdixan. Segun eta zeinen kontra jokatzen dogun edo bateonbat lesionauta badao entrenadoriak toki batian edo bestian jartzen zaitxu.

– **Zein da Haundiri itzala egin**

diezaiokeen taldea? - Touring, Tolo... Danak gaude 5 punturen artian.

– **Zenbat urte egin dituzue Errealean?** - Sei. Kadetietan, jubeniletan eta azkenian Sansen.

– **Zurekin batera hasitakoak dira Joseba Etxeberria, Eugenio Caro eta Josu Ibarra.** - Josebari ikusten jakon figura zetorrela eta Josu eta Caro ondiok Sansian dao. Beti daukazu pena piska bat Erreal lagatziagatik baina nik argi nakan jolastia nahi nabala eta ez bankiluan. Anbientia ere desberdina da. Elgoibarren harremanak lagun artekuak diaz baina Errealian hotzaua da dana, serixuaua.

– **Non ikasi duzu gehiago, sei urtetan Errealean ala urtebetean Elgoibarren?** - Gauza ezberdinak ikasten diaz. Errealian teknikia gehixao, inportantiena ondo jolastia zan. Motibaziua desberdina da. Elgoibarren jokua desberdina da, borroka gehixo dao. Hala ere, jokatzerakuan konturatzten naiz zeozer ikasi dotela.

– **Mintxetako afizioaz zer iritzi?** - Jende gutxi juten da. Etxeko ekipua urtetzen danian normalena txalotzia izaten da, ba, Elgoibarren hori ere ez. Leruneko afizio haura galdu ein da. Mintxeta hotzaua dalako izango da.

– **Zein da orain zure helburua futboleant?** - 2Bra igoztia eta eta gero ikusi zer datorren.

ESKOLARTEKO JOKOAK

AGENDA (Martxoak 8, larunbata)

ESKUBALOIA

■ Benjamin mutilak (Ikastolan)

10:30 Mendaro A2 - Ikas Kirol
11:00 Mendaro A1 - Ikas Zirt

■ Benjamin mutilak (Kiroldegian)

11:30 Ikas Marrazo - Ikas Txut
12:00 Pilar Flash - Pilar Lakasitos

■ Benjamin neskak (Ikastolan)

10:00 Ikas Izurde - Pilar Usoak
11:30 Mendaro B - Ikas Izar
12:00 Ikas Izar - Pilar Kas

ARETO FUTBOLA

■ Alebin mutilak (Pilarrean)

9:45 Ikas Axelkoak - Pilar S. Germain
10:30 Ikas Otsokoak - Pilar Ajax
11:15 Ikas Ikargi - Herri Boome-

rang

12:00 Herri Manchester - Mendaro D

■ Alebin neskak (IMHn)

10:30 Ikas Txingor - Ikas Sei
11:15 Ikas Laino - Pilar S. Girls
12:00 Mendaro C - Herri Women's

■ Infantil mutilak (Herri Eskolan)

9:45 Ikas Urdin - Ikas Amantis
10:30 Herri Milan - Ikas Txuri
11:15 Pilar Boys - Ipurterreak
12:00 Pilar Inter - Ikas Pirri

■ Infantil neskak (Herri Eskolan)

10:30 Peña Insti - Ikas Gorri
11:15 Pilar Girls - Ikas Beltz
12:00 Pilar Manchester - Ikas Katxondak

K I R O L A L B I S T E

● Ibai Klubeko emaitza onak Gimnasia Erritmikoa

Ibai Klubeko neskek Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako eskolarteko txapelketan parte hartu zuten joan den otsailaren 22an. Esther Idiakez taldeka bigarren postuan sailkatu zen. Halaber, Carmen Lendinezek laugarren postua eskuratu zuen alebinetan. Maria Idiakezek zazpigarren postua lortu zuen, alebinetan honek ere. Bestalde, martxoaren 1ean Eibarko Kiroldegian izandako beste proba batzuetan Oihane Garatek lehen aldiz parte hartu zuen eta esku librean modalitatean lan bikaina egin zuen. Hilaren 8an, Soraluzeko Kiroldegian izango dira Ibai Klubeko gimnastak.

Morkaikoren zuzendaritza berria lanean hasita dago

Argazkian agertzen direnek osatzen dute Morkaiko Mendizale Elkar-teko zuzendaritza berria. Joan den ostiral iluntzean elkartean bildu ziren eta karguetarako kideak hautatu zituzten. Horrela bada, datozen urteetarako lehendakaria Jon Peli Uriguen izango da. Lehendakariordea Asier Sasiain eta diruzaina Imanol Kapanaga. Irteerak eta ekintzak koordinatzeko talde bat eratu da, Arantza Beristain, Ekaitz Baskaran eta Unai Argaratek osatzen dutena. Datorren ostiralean

zuzendaritza berri bilduko da aurtengo egutegia diseinatzeko. Jon Peli Uriguenek esan digunez, "ziur-ziur mantenduko diazen ekintzak Mendi Itzulixa, Finalista Eguna eta Morkaikon Jaiotza ipintzia izango diaz, maiatzian, ekainian eta Gabonetan eingo diazenak". Zuzendaritza talde osoa 11 lagunez osatua dago eta ordutegiak lehengoa izaten jarraituko du: ostiraletan arratsaldeko 7,30etatik 9ak arte eta larunbat goizetan 11etatik 13etara bitartean.



Argazkiko gazte kuadrilak osatzen du Morkaikoren zuzendaritza berria.

A K · K I R O L A L B I S T E A K

● Leticia Astray lesionatua Bidebietarekin lehen partiduan

Bidebieta talde donostiarrekin jokatuen lehen partiduan, Leticia Astray eskubaloiko jokalaria elgoibartarrak eskumako belaunetan ligamentuak hautsi zituen. Hiru astez igeltsuaz egon beharko du eta beste lesio grabeagorik ez badauka hiru hilabete-ko errehabilitazioa egin beharko du. Leticia esan digunez, erresonantzia bat egin behar omen diote ligamentu gurutzatuak hautsi dituen ikusteko. Hala balitz, operazioa eta denboraldi osorako erretiroa etorriko zaio elgoibartarrari.

● Urrezko sei domina Ibai Klubekoentzat

Ibai Klubekoek urrezko sei domina irabazi zituzten joan den larunbatean Arrasaten izandako Gipuzkoako judo-txapelketaren lehen saioan. Alebinetan Maialen Mora, Zuriñe Polo, Maria Idiakes eta Aitor Mugerza izan ziren urrezkoa jasozutenak eta Mikel Muñozek zilarrezkoa. Infantiletan Egoitz Morak eta Zuhaitz Azpiazuk lortu zuten urrezkoa. Zilarrezkoa Xabi Gonzalezek eta Esther Idiakezek eta brontzezkoa azkenik, Josu Idiakezek.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 3 - Lagun Onak 3
Elgoibar 2 - Kilimon 4 (1. erreg.)
Elgoibar 2 - Euskaldunak 1 (Oho. jub.)
Elgoibar 1 - Dunboa 1 (2. jub.)
Antoniano 1 - Elgoibar 1 (Neskak)
Elgoibar 0 - Lagun Onak 7 (Oho. kad.)
Aitzgorri 1 - Elgoibar 1 (Oho. inf.)

Saskibaloia

Txankakua Elg 65 - Kevian Sport 54

Eskubaloia

Pneumax Elg. 36 - Almen 15 (Kad. mut.)
Unceta Elg. 29 - Usurbil 3 (Kad. nesk.)
Pagoaga Elg. 16 - Hernani 10 (Jub. nesk.)
Don Bosco 16 - Tecnomeca Elg. 19 (Jub. mut.)
Ormaiztegi 21 - Hyundai Elg. 18 (Seniorrak)

Futbitoia

Karkis 10 - Kunta Kinte 2
Aurtin Bai 4 - Berrogei Duro 13
Orbela 2 - Zazpi 4

Areto futbola

Gure Txokoa 4 - Elgoibar F.S. 2 (1. maila)
La Navarra 3 - Elgoibar F.S. 0 (Auton.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 8
13:30 Gazteak - Beti Sutan (2. erreg.)
15:30 C.D. Elgoibar - Oiartzun (Oho. jub.)
17:15 S.D. Eibar - Real unión (Jubenilak)
19:00 Pedrusko - Eibartarrak (2. erreg.)
Igandea, 9
12:00 C.D. Elgoibar - S. Herrera (Infantilak)
13:45 Urki - Baskonia (2.erreg.)
15:30 Eibar - Amaitasuna (Oho. kad.)
17:20 C.D. Elgoibar - San Patricio (2. jub.)
19:05 Eibartarrak - Oiartzun (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 8
17:30 Elgoibar - Urola (Seniorrak)
Igandea, 9
12:15 Tecnomeca - Bergara (Jub. Mut.)

Areto futbola, Kiroldegian

Ostirala, 7
22:10 Elgoibar F.S. - Aloña Mendi (1. maila)
23:10 J. Puerto Pasajes - Elgoibar F.S. (Auton.)

Atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 8
10:00 Eskolarteko atletismoa

EDURNE LASA

“Goenkaleko 504. ataletik aurrera agertuko naiz”

Edurne Lasak txikitan etxeetako portaletan antzerkia eta dantza egiten zuen auzokideentzat, “niri gustatzen zitzaidalako egiten nuen eta jendea entretenitu egiten zen”. Artista sena familiarik omen datorrio. “Zerbait genetikoa izango da ze nire aitaren partetik Legorretako osaba-izebak antzezleak dira”. Zerbait ba omen da, izan ere, Goenkaleko “Ane”ren pertso-

naia egiten duen Anuska Lasa bere iloba baita. Edurnek 25 urte daramatza Ikastolako irakasle; gaur egun hezkuntza bereziko gelaren arduradun eta DBHko antzerki tailerren antolatzaile da. Taupadako taldearen sortzaileetarikoa bat den aktorea honek orain telebista aktore izateko aukera du Goenkale telesail ezagunaren eskutik.

- Datorren ostegunean aterako zara lehen aldiz.

- Bai, 504. atalean. Agerraldi motz bat bakarrik da, pertsonaiaren aurkezpena.

- Eta zein pertsonaia ikusiko dugu bertan?

- Nahiago dut ez esatea, sorpre-saz azalduko da eta. Kanpotik iristen da Arraldera. Jende askok esan dit Perurenaren gaztetako nobia izango ote den nire pertsonaia ze hark Edurne izena dauka. Logikoa da hori pentsatzea Josu Mujikaren kasuan ere izena berdin mantendu ziotelako baina nire kasuan ez. Nire izenarekin agertzen den pertsonaia ez naiz ni.

- Nolakoa da pertsonaiaren perfila?

- Niregandik oso urruti dago, oso. Gainera denbora gutxi izan dut mentalizatzeko eta pertsonaian sartzeko. Askotan Goenkale egiten dutena da pertsonaia bat sortu eta aktorea pertsoniarekin garatzen joan. Nire kasuan pertsonaia erabat definituta zegoen eta ni sartu behar izan naiz bere azalean.

- Gustura al zaude pertsonaiaren azalean?

- Oso gustura. Askok errespetatzen dut baina oso berezia da. Niretzat erronka handia da. Satisfazio izugarria eman dit aktorea naizelako aukeratu izana.

- Zer gustatzen zaizu zure pertsonaiatik?

- Oso ausarta dela, argia, abila, bihotz onekoa,... Dena den, bere jokatibideak nolakoak izango diren ikusteko dago ze ez dakit nola gartuko den gidioia. Pertsonaia nahiko fijoia izango dela uste dut denbora batean.

- Utziko al zenituzke antzeztokiak platoengatik?

- Sekula ez. Telebistan gustura sentitzen naiz baina ezingo nuke antzerkia utzi. Niri gorputz guziarekin komunikatzea gustatzen zait eta telebistaren aurrean oso mugatuta zaudela.

- Zer moduz ikusi duzu zeure burua telebistan?

- Lehenengo agerraldian oso txarto. Makilajearekin aprobarik egiteko aukerarik ez genuen izan eta hala nola makilatu eta orraztuta aterantzen. Nahiko aldatuta ikusten naiz, orrazkera, jantziak, zahartxoagoa... baina ohitzen noa.

- Kasting asko egin behar izan dituzu papera eskuratzeko?

- Ez. Iaz kasting bat zegoela eta, Taupadako lankidea Jose Mari eta biok aurkeztu ginen kuriositate hutsez. 500 edo izango ginen. Geroztik ez nuen berririk izan eta otsailean deitu zidaten kamara frogatuz egiteko. Astebetera deitu eta papera eman zidaten.



Esther Mediavilla

IKASLEA - 20 URTE



1- Merezi al du bizitzeak? Eta Elgoibarren bizitzeak? - Bai, bizitza Jainkoak emandako dohain bat da eta aprobetxatu egin behar da. Elgoibarren gustura nago, nahiago dut herri bat hiri bat baino.

2.- Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batengan? - Berak eskatuko balu bai eta ezin izango balu eskatu ikusiko nuke ea sendatzeko biderik dagoen ala ez eta horren arabera pentsatu egingo nuke.

3.- Hil eta gero? - Bizitza hau baino hobea den zerbait dagoela sinestu nahi det baina ez dakit zer dagoen.

4- Lehenengo ni eta gero besteak. - Ez kasu guztietan baina orokorrean gaztiak oso egoistak gera.

5- Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Lagunei.

6- Zein da zure bizitzako anbizioa. Eta bizioa? - Anbizioa pozik bizitzea eta familia bat izatea eta bizioa, atzazkalak jatea.

7- Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik? - Ez dut sinesten eta aukera izan nuenean botatzeko ez nuen botatu ez nuelako bat ere garbi.

8- Noiz joan zinen azkeneko manifestaldi batera? - Iaz fakultatean pintada batzuk egin zituzten eta horren kontrako manifestazioara joan nintzen.

9- Euskalduna naiz eta harro nago? - Bai. Gure izaera da eta

harro egon behar dugu.

10- Zerk galerazten dizu loa? - Ezerk. Ez dut hain arazo larririk.

11- Gaztetxea behar al da Elgoibarren? Nolakoa? - Bai, gazte guztiak elkar daitezten. Ni Sigmakoa naiz eta han badaukagu, herrian beste bat behar da.

12- Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? - Ez, ikasketetan piskat beharbada.

13- Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

- Gehien askatasuna ematen didatela. Ama oso gaztea da eta harreman estua daukagu, niretzat lagun bat da eta berarekin juerga ere egin izan dut. Gutxien, ikasketak direla eta gainean egotea beti.

14- Laguntzen al duzu etxeko lanetan? - Bai, erratza pasatzen dut, platerak garbitu, ohea egin, hautsa kendu...

15- Alkoholik gabeko jairik?

- Nik bai, zergatik ez?

16- Irakurri duzun azken liburua? - "El triangulo

de las Bermudas" irakurtzen nabil aspalditik.

17- Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Maitasuna sexurik gabe.

18- Birjinitatea sakrifizioa ala bertutea? - Neretzat bertutea da nahiz eta gaur egun hori mantentzeak sakrifizioa edo oportunitate falta ematen duen.

19- Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Nere laguna balitz nere tendentzia ez dela homosexuala esango nioke baina adiskidetasuna mantendu genezakeela. Ezezaguna balitz, gauza bera.

20- Sinesten al duzu betirako maitasunean?

- Ez, denborarekin amaitu egiten da eta ohitura, kariñoa edo beste zerbait geratzen da. Gainera ni oso "enamoradoza" naiz.



TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

ANCHUSTEGUI S_a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
 Gurutze Gorria . . . 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emaileak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua
 744415
 Kultura Zerbitzua . 742158
 Mendaroko Udala. 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . 741626
 Kiroledegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola . . . 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco . 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21

8

larunbata

**14:30 BAZKARIA
 EMAKUMEENTZAT**

Aubixako aterpetxean
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

19:30 - 22:15 ZINEA
 "Secretos y mentiras"

**22:30 EMANALDI
 EROTIKOA**

Antzezlan: "Igurtxi
 nazazu berriro laztana"
 Egileak: Asier Serrano,
 Joxe Mari Carrere eta
 Mikel Markez.
 Lanbroa kafetegian
 Antolatzailea: AEK

9

igandea

16:30 ZINEA
 "El hombre enmascarado"

19:30-22:15 ZINEA
 "Secretos y mentiras"

10

astelehena

22:15 ZINEA
 "Secretos y mentiras"

7
ostirala

**18:30 ODOL
 ATERALDIA**

P. Urruzuno 8an

22:15 ZINEA
 "Secretos y mentiras"

ZIN



Zuzendaria: Mike Leigh
Antzezleak: Timothy Spall, Phyllis Logan, Brenda Blethyn.

"Secretos y mentiras"

Bretainia Handiko klase baxuko familia bat ardatz hartuta Thatcher lehen ministroaren garaiaren kritika sakona egiten du. Emakume heldu bat Cynthia, bizitzaz asperturik dagoena, bere alabarekin bizi da. Bizitza arrunta dute. Egun batean neska gazte bat agertzen da euren bizitzan. Lanbide eta egoera sozial aparta du eta Cynthia bere ama dela ezagutzera ematen du. Gauzak korapilotu egiten dira, Cynthiaren alaba berria, beltza baita.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
 BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 67 68 64


14 ostirala

22:30 ZINEA

“Urte Ilunak”
Arantza Lazkano
zuzendariaren aurkezpena
Herriko Antzokian
Antolatzaileak: AEK
euskaltegia eta Ongarri
Zine Kluba

● “Igurtzi nazazu berriro laztana”

AEK eta Lanbroa kafetegiak “Igurtzi nazazu berriro laztana” izenburuko emanaldi erotikoa antolatu dute biharko, hilak 8. Jose Mari Carrere ipuin kontalaria, Mikel Markez abeslaria eta Asier Serrano poetaren eskutik, Euskal Herrian sexuaren edo ligatzearen inguruko gora-beherak erakusten ditu antzezlanak. Emanaldia gaueko 22:30etan Lanbroa kafetegian izango da dohai-



● Irratsaio berezia Zazpikin

Haizeak antolatutako ekintzen barruan, bihar, hilak 8, irratsaio bereziak izango dira Zazpiki Irratian Susana Mujika elgoibartarraren eskutik. Musika eta elkarrizketak entzuteko parada izango da goizeko 10etatik 11etara bitartean eta arratsaldeko 5etatik 6ak arte.

● “Urte ilunak” pelikula

AEK-k eta Ongarrik elkarlanean antolatuta, “Urte ilunak” filmea emango da datorren ostiralean, hilak 14. Emanaldiaren hasieran Arantza Lazkano pelikularen zuzendariak aurkezpena egingo du. Zine saioa ohiko orduan izango da, 22:15ean,

hain zuzen.



Zuzendaria: Arantza Lazkano
Antzezleak: Carlos Panera, Klara Badiola, Asier Arriola, Amaia del Rio.

Urte ilunak

Bigarren Gerrate Mundiala amaituta, gerraosteko garaian, Itziar, 8 urteko neskatua bi mundu ezberdinetan bizi da. Batetik errepresioaren mundua ezagutzen du: bere guraso abertzale eta beldurtuak ikusten ditu eta zigorrean eta kulpabilitatean oinarritutako hezkuntza jasotzen du eskolan. Beste mundua kalekoa da, ilusioz beterik eta zoriontasunez bizi duena. Osasun arazoak direla eta, internatu batera bidaltzen dute Itziar. Urte batzuk beranduago, herrira itzultzean gauzak aldatu egin direla ikusten du.

T X A N - D A K

FARMAZIAK

Egunez	Gauetz
7	Etxeberría Zabaleta
8	Ormazabal
9	Ormazabal
10	Etxeberría Etxeberría
11	Yudego Zabaleta
12	Bidasolo Bidasolo
13	Yudego Yudego



La Previsora Bilbaina
Aseguradora Riazor, S.A.
Aseguru konpainia (Eibarko delegazioa)

MUGICA Funeraria

24 orduko hileta zerbitzua

Bidebarrieta, 20 - behea, esk. - 20600 EIBAR

Tel: 20 19 51

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Bulegorako mobiliarioa salgai. ☎ 74 28 64
- ◆ Idazmakina elektronikoa berria salgai ☎ 74 44 43 (5:30etatik aurrera)
- ◆ MIBI 4X4 etxe-furgoneta bat salgai. Teilatu altzagarrria, guztiz ekipatua, estra askorekin. ☎ 76 04 47
- ◆ "LETRERO DE MENSAJES" delakoak saltzen ditut era guztietako komertzioetarako, taberna eta jatxeetarako bereziki fabrikatuak. Berriak eta gutxi erabiliak. Prezioa hitzegitekotan. ☎ 74 00 38
- ◆ Panasonic KR-P1180 inpresore matriziala, Windows 95ekin konpatiblea salgai. (Mikel) ☎ 74 19 21
- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ 79 78 26. Goizez 10etatik letara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreinatua berria salgai. ☎ 74 23 22
- ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30

Partikularrak

- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 Garikoitz
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Ingeleseko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ 74 15 82 Edu

Garajeak

- ◆ Garaje itxi bat daukat alokatzeko Arregitorren. ☎ 74 22 11 (Eguerdian)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ 74 06 09 Marisabel
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 74 28 43
- ◆ Klinika auxiliarra eta psikiatra auxiliarra gaixoak zaintzeko rest dago. ☎ 74 05 45
- ◆ Neska batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. ☎ 74 30 84 (Reme)
- ◆ Haurrak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 22 78
- ◆ Ordenadorez lanak egiten ditut bai enpresentzat eta bai partikularrentzat. Deitu ☎ 74 22 86 zenbakira.
- ◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke. ☎ 74 30 30
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ 74 36 38
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ 989 09 31 86

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Piezen Mekanizazioan espezializaturiko enpresak behar du: fresatzeko CNC makinarako fresatzaila edo zutabe mugikor eta begietako bistagailua duen Juaristi makinarako mandrinatzailea. Ezinbestekoa: kontrol numerikoa jakitea eta euskaraz hitz egitea. Interesatuak dei ☎ 74 12 97/74 06 64

Bestelakoak

- ◆ Harri bitxiak dituen urrezko pultserra bat galdu nuen pasa den ostegunean. Sarituko da. ☎ 74 18 33
- ◆ Urasandiko bidean konpas kaxa bat eta zorro bat galdu nituen. Aurkitu baduzu deitu ☎ 74 25 67
- ◆ Caritas-ek egongelarako armairu bat hartuko luke. ☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ◆ 1970. urtean jaiotakoan eta Ikastolan ibilitakoan afaria antolatu da. Joan nahi duenak dei dezala. ☎ 74 06 40 (Maria Pilar Arrizabalaga)
- ◆ Bi katakume oparituak nituzke. Bata arra eta beste emea. ☎ 74 23 33 (Belen)
- ◆ Zortzi-hamar urte bitarteko ume batentzako bizikleta oparituak nuke. ☎ 74 44 34
- ◆ Madala inguruan almagenerako lokal bat alokatzen da. ☎ 74 13 84

Etxebizitzak

- ◆ Pisu bat daukat alokatzeko. ☎ 74 19 22
- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. Erabili gabe dago. ☎ 75 51 77
- ◆ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldea, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ 74 44 66
- ◆ Pisu daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkitua. ☎ 74 01 34
- ◆ Pisu salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. ☎ 12 72 22
- ◆ Pisu salgai San Inazio kalean. 90 m2koa. (9etik 13etara) ☎ 74 32 04

Agurrak

- ◆ Zorionak **Nerea Sanchez** martxoaren 6an 11 urte bete zituelako. Oselen partez.



- ◆ **Izaskun Esnolari** zorionak martxoaren 12an 8 urte egiten zituelako. Familia guztiaren partez.



- ◆ Martxoak 8. Martxoak 9. Eta Martxoak 11. **Nerea Koldobike** eta **Ismene**. A zer hiru emakume puska! Zorionak xaladas! Badakizue, ez?



- ◆ Zorionak **Nagore Aranzamendi** hilaren 5ean 11 zantabazo bete zituelako. Musu haundi bat eta hamaika tirakada kuadrilaren partez.

- ◆ Zorionak **Jonathan Martini** hilaren 5ean 11 urte egin zituelako. Lagunen partez hamaika tirakada handi. Zorionak baita ere familia osoaren partez.

- ◆ Superzorionak **Nagore Aranzamendi** martxoaren 5ean bere urtebetetzea izan zelako. Saioa, Leire, Miriam eta Gorrotxiren partez.

- ◆ **Lorea**, zorrionekoa pasa duzun astea. 26an ezkon urtea, 27an urtebetetzea eta Ilean Beñat ekarri zenuen mundura. Zorionak eta izan zaitzete zoriontsu. Sebas, Ane, Joseba eta Imanolen partetik.



Automobilaren konponketa eta errekanbioen

ORDUTEGIA

Astegunetan: 9,30tik 13,30era eta 15,30tik 19,30era

Larunbatetan: 10,00etatik 14,00etara

DEMASEKO ESKAINTZA OLIO ALDAKETAN

- MOTUL 4.000 15W50 olio erdi-sintetikoa
- 10.000 Km.tan ziurtatua
- Berehalako aldaketa

Olio aldaketa, eskulana eta nibelak: **4.290**

Injekzioaren garbiketa: **8.500**

AUTOAREN MANTENURAKO BEHIN-BETIKO SOLUZIOA,
ZERBITZURIK OSOENAREKIN



Santa Klara, 13 ■ Tel: 74 21 08
ELGOIBAR

WOOSUM

NEUMATIKOAK

135R13 = 3.739

145R13 = 4.095

155R13 = 4.496

155 / 70R13 = 4.622

165 / 70R13 = 5.226

175 / 70R13 = 5.537

185 / 60R14 = 8.297

195 / 60R14 = 8.960


(BEZik gabe)

PAGOAGA S.A. Iturgintza



↳ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

↳ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA
PROPANOA

☎ 74 02 79
74 05 12

Faxa: 74 35 65
San Antolin Kalea, 13
ELGOIBAR

HYUNDAI COUPE BERRIA



Kalitatearen eta prezioaren
arteko erlaziorik onena:

Aire egokitua barne



HYUNDAI

MENDARO AUTOAK

DONOSTIA

Zumalakarregi, 1
Tel. 31 22 00

ELGOIBAR

Olaso, 27
Tel. 74 32 00

EIBAR

Otaola, 27
Tel. 70 13 82

GIPUZKOARAKO BANATZAILE OFIZIALAK